

Att: Elixabete Uribarri Uriarte
Alkate andrea

Gaia: Mozioak batzordeen eta osoko bilkuran gai ordenean txertatzeko	ZNBK: 97/2020
---	----------------------

Elixabete Uribarri Uriarte Alkate andrea,

Azken hilabeteotan, gure herrietako hainbat zerbitzu publikoetan murrizketak edo zerbitzuen eteteak gertatu dira. Hain zuzen ere, bankuek bulegoko zerbitzua mugatu dute, Correoseko bulegoa irailaren 13ra arte itxi dute edo gure anbulatorioko zerbitzuak murriztuak ikusi dira. Honek eragin zuzena dauka plentziarron ongizatean eta bereziki egoera zaugarrietan dauden jendarte sektoretan.

Horregatik, alde batetik, osasun arloko sindikatu guztiek aho batez proposatutako mozioa (2323 sarrera erregistro zenbakia, uztailaren 8koa) hilabete honetan dagozkigun batzordeetako gai ordenean txertatzea eskatzen dugu. Beste aldetik, EHBildu Plentzia udal taldeak bankuen zein Correosen zerbitzuen aurrean hurrengo bi mozioak ere gai ordenean sartzea eskatzen dugu eta, nola ez, azken bi mozio hauek Gobernu Taldearekin batera lantzeko prest gaude, adierazpenak aho batez onartzeko asmoz.

Gure eskaera kontuan hartuko duzulakoan, zure erantzunaren zain geratzen gara.

Adeitasunez,

Plentzian, 2020ko uztailaren 17an



David Crestelo Dominguez

1- Kutxabank eta Laboral Kutxari:

Azken urteotan banku operazioak modu telematikoan egitea zabaltzen ari bada ere, batzuetan behar beharrezkoa izaten da bulegora bertaratzea. Azken hilabeteetan, gure herrietako hainbat banketxeko bulegoko zerbitzuak hainbat murrizketa jasan ditu. Kutxabankek goizeko ordutegia bi egunetara mugatu du eta Laboral Kutxak bulegoa itxita izan du orain arte. Berriki, bulegoa ireki dute baina soilik bi egunetan, Kutxabank bezala.

Plentziarrok zerbitzu hau jasotzera beste herri batzuetara mugitu behar dugu. Honek herri bezala kaltea eragiten digu, baina bereziki erasango ditu nagusiak eta erretiratuak; adineko askoren autonomiarentzako kolpe latza izan da.

Herriko ostalari, merkatari eta bestelako hainbat enpresarentzako ere kaltea esanguratsua izan du, telematikoki egin ezin daitezkeen operazioak egiteko beste herriren batera joan behar dute egunaren arabera. Gainera, uda garaian populazio bikoizten dela, zerbitzuan egondako murrizketak eragin zuzena izaten ari dira, ilarak luzeak eta hainbat kasutan beste herri batzuetara desplazatu behar izatea.

Arazo honen aurrean, Plentziako Udaltzarak erabaki hauek hartu ditu:

- Kutxabanki eta Laboral Kutxari plentziarren gaitzespena adieraztea.
- Kutxabanki eta Laboral Kutxari eskatzea atzera egin dezaten, eta Plentziako bulegoetan zerbitzua mantendu dezaten.
- Udalak Kutxabanken zerbitzuen murrizketa zein Laboral Kutxaren bulegoa itxi ez dadin ahaleginak egiten jarraitzea.
- Hainbat komertzioetan bideratzen ari diren sinadura jasotzearekin bat egitea.
- Akordio hau bi finantza-erakundeei helaraztea: Kutxabank eta Laboral Kutxa

Plentzian, 2020ko uztailaren 30ean

2- Posta-bidezko zerbitzua:

Berriki Plentziako Correoseko bulegoa uztailaren 11tik irailaren 13ra arte itxiko zutenaren iragarpena jaso genuen. Hots, posta-kutxatilak eta jakinarazitako bidalketak jasotzeko Plentziarrok Gorlizko bulegora hurbiltzera behartuta ikusi gara.

Zerbitzu publiko batean ematen den murrizketa izateaz gain, Plentziarrok zerbitzu hau jasotzera beste herri batzuetara mugitu behar dugu. Honek herri bezala kaltea eragiten digu, baina bereziki erasango ditu nagusiak eta erretiratuak; adineko askoren autonomiarentzako kolpe latza izan da. Haurren edo pertsona dependienteen zaintzaz arduratzen diren horientzat ere oztopo esanguratsua izan du.

Arazo honen aurrean, Plentziako udalbatzak erabaki hauek hartu ditu:

- Correos enpresari Plentziarron gaitzespena adieraztea.
- Correos enpresari eskatzea atzera egin dezan eta Plentziako bulegoan zerbitzua mantendu dezan.

Plentzian, 2020ko uztailaren 30ean